



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

JAKINARAZPENA

Honen bidez jakinarazten dizuet, 2024ko azaroaren 21ean, Zaldibiako Udaleko alkate jaunak honako erabakia hartu duela:

“Ioritz Berra Juaristi, Zaldibiako Udaleko Alkateak, TokiAraubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

2020ko azaroaren 11n sinatutako Alkatetzako Dekretu bidez herri baratza ekologikoak esleitzeko azken deialdi orokorra egin zela.

Baratze ekologikoen esleipena eta aprobetxamendua arautzen duen Udal ordenantzari jarraikiz deialdia egin behar dela.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena

Indarrean dagoen legediak ematen didan ahalmenaz baliaturik,

ERABAKI DUT

Lehena.- Herri baratzak esleitzeko eta erabiltzeko udal ordenantzaren eta zenbait aldaketa onartu zireneko erabakiak (GAO, 2021/04/15, 68 zk.) berrestea.

Bigarrena.- Herri baratza ekologikoen aprobetxamendua esleitzeko prozesuari hasiera ematea.

Hirugarrena.- Baratzeen erabilera arautzen duen Udal ordenantzaren arabera interesdunek honako baldintzak bete behar dituzte:

- Zaldibian erroldatuta egotea, behintzat iragarkia argitaratu baino urtebete lehenagotik.
- Zaldibiko Udalarekiko zerga-betebeharrak eta beste edozein motatakoak ordainduta izatea.
- Familia-unitate bereko kideren bat ez izatea beste baratze ekologiko baten erabiltzaile.
- Ez izatea nekazaritza- jarduerarako egokiak diren beste landalur baten jabe, ez edukitzea beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ezta

maizterra izatea ere, ez erabiltzailea bera, ezta familia unitateko beste edozein kide ere. Araudi honetan zehaztutako ez- betetzeren batengatik zehapenen bat jaso ez izana.

Laugarrena.-Izena emateko epea 2024ko azaroaren 21ean hasiko da eta 2024ko azaroaren 30ean amaituko da.

Eskaerak egiteko, web-orrian jarritako eskaera-orria erabiliko da, eta osatu ondoren Udalaren egoitza elektronikoa edo udaletxeko harrera bulegoan erregistratuko da. Udaletxeko harrera bulegoko ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera, goizeko 08:30etatik arratsaldeko 15:30etara.

Bosgarrena.- 11 baratze daude guztira eta zozketa bidez esleituko dira. Baratze kopurua baino eskaera gehiago aurkezten badira, bi zozketa egingo dira, lehenengoa, baratzea esleitzeko zozketan parte hartzeko, eta bigarrena, baratzea esleitzeko.

Seigarrena.- Esleipendunak, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epea izango du 100 euroko fidantza jartzeko. Zaldibiako Udalaren diruzaintzan Kutxabanken duen ES95 2095 5075 13 1060018131 kontu korrontean diru-transferentzia eginda jarriko da, eta esleipendunaren datuak jartzeaz gain, 2024IORT003 espediente zenbakiari dagokiola aipatuko beharko da. Horrela egin ezean, baratzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

Idazkari kontu-hartzaileak

Miren Maite Toledo Saralegui